

Isabel Jauregi Mendizabal

*Antzuola
Gipuzkoa (1926)*

Aurkibidea

Biografia



Irimoegigoena auzoko Sarasketa baserrian jaio zen 1926an. Aita bertakoa zuen eta ama Aritzagabasalde baserrikoa. Antzinako bizimoduaz, baserriko lanez eta abarrez azalpen zehatzak eman zizkigun.

Zintak

ANT-067

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ANT-068

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. San Fermin jaiak

- **Erref:** ANT-067/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>San Fermin biharamunean jaiotakoa. San Fermin jaiak.</p>

Transkripzioa

-Larogei urte. Eginda edo eitteko?

-Bai, Juliuan eindda. San Fermin bixamonian.

-Fetxa seiñalaua, ez?

-Bai. Egunekua izan banintz seiñalauaua, baiña orduan Fermiña edo igual...

-Ezagutzen zan San Fermin eta?

-Bai.

-Eta famia zekan?

-Bai. Gero hor egon zan gerra ostian edo, urte baten edo egin barik geratu zala uste dot, eta zihero, ezebez, seguru; eta atzera berriz hasi zien gero.

[...]

-Baiña ordurako...

-Bai, bai. Gerria, aurretik. Gure akorduan beti. Oin bezela etzan jutun jentia, e. Orduan han bertakuak eukiko zebeñ afana baiña, hemendik batzun batzuk joango zien, baiña gutxi.

2. Irimoegi auzoa; bideak

- **Erref:** ANT-067/003

- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Sarasketazar baserrian jaiotakoa, Irimoegi auzoan. Auzoko beste baserri batzuren izenak. Lehenagoko bideak. Auzoa nolakoa den. Eguraldi kontuak.</p>

Transkripzioa

-Ze basarritan jaixotakua?
 -Ni? Sarasketa. Sarasketazarra.
 -Han Irimo auzuan?
 -Beste Irimo auzuan, bai.
 -Han zer dare, Sarasketa zar. Eta beste basarriren bat?
 -Behian. Goixan beste bat Sarasketa Etxeberri jausi ein zan. Ia familixia kalera jun zan eta kalera jun eta belaxe jausi zan. Etxia. Etxia edo teillatua jausi jakon eta gero kitto. Errenteruak zien eta.
 -Orduan zaharra mantentzen da eta barrixa jausitta.
 -Jausitta, bai. Eta gero azpikaldian Iribar. Gero handik behera saillian dare, [Allutz] Txiki eta, Irala eta Torria eta basarrixak, kamiño onduan. Oin kamiñua dao, lehenao estratak zian.
 -Gaiñera auzo politta da, ezta? Basarri asko eta, bueno, oso ederra...
 -Bai, auzua argixa. Handik dao bistia... Ni handi honaa etorri nintzanian dana mendixa besteik ez naban ikusten. Handi ikusten zan Elgeta, Angiuzar eta Bergara parte zera, Ipiñarritta Torre ta horrek danak ikusten die.
 -Gaiñera zeuena dexente altu dago, ez?
 -Bai. Zu izenda igual egongo za han?
 -Bai. Kontau notsun gaiñera anaiaikin egon nintzala... Baiña bai, hori pentsau jatan, bai.
 -Oinddio bizi da haura.
 -Demaseko bista onak.
 -Oso bista ona handi. Baiña haizia eta nordia zeuanian, e...
 -Alda txarrak be eukiko dau. Orduan, nordiak jotzen zebanian, hotz?
 -Orduan hotz eta haizia eta eurixa eta lanak. Gero kalera juteko be izeten zien bidetxurrak, oiñez kalera juteko. Eta astuakin eta ganauekin eta juten zienien estratak, lokatza-zulo galantekin. Handixik jun bihar, jun ta etorri ein bihar ganauekin eta be. Ez oingo moduan kamiñuan.

3. Bizimoduarekiko ikuspegia

- **Erref:** ANT-067/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Bizimodua zeharo aldatu da. Esaldi indartsua. Goserik ez, baina lujorik ere ez. Familia kontuak.

Transkripzioa

-Atariraiño autuakin eta.
-Ateraiño zerian, eta oiñez ibiltzeko nagiz jendia artian.
-Asko aldatu dia gauzak.
-Bueno! Esan be ezin! Guk sei-zazpi urte giñutzenetik ein daben diferentzia... Ez dakit. Akaso haundixaua eingo eban hainbeste urtian. Baiña gora eittia kostako jako. Behera ez dailla hasi.
-Zuek ezautu dozuez beste bizimodu edo beste sasoe batzuk, baiña guk halan ohittuta; bueltia etorriko balitza...
-Aaa! Gorrixak ikusi bihar bueltia etorriko balitza. Jangoikuai eskerrak goseik ez giñuan geuk pasau, baiña lujoik ezekin be ez.
-Familixia be haundixa izango zan?
-Sei anae-arreba giñan. Aitta eta ama. Zaharrik, aittona-amonai ez giñuan guk ezautu. Orduan lehenao hiltzen zien itxuria. Geure gurasuak be... Amak larogeta urtiak hartu zittuan, larogeta hiru edo lau edo. Ez dakit zenbat hartu zittuan. Aitta lehenao hil zan. Enda oin anaia, ixa larogeta hamar dauzka, eta bigarrenak be larogeta zortzi. Aurtengo neguan larri ibilli da, baiña berriz ere ondo. Eta holaxe.

4. Gerraosteko egoera; kalean gosea

- **Erref:** ANT-067/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Familia kontuak. Senide asko etxe bakoitzean; bai baserri inguruan eta baita kalean ere. Gerraostean kaleko jendea baserrira joaten zen lanera "tripa-truke".</p>

Transkripzioa

-Familia haundixak izeten zien...
-Bai. Jeneralian bost-sei edo gehixao, hortik beherakuak gutxi. Lautik behera, behintzet familixia izeten zeбенak, edo batez edo...
-Hori zer izeten zan askotan, basarrixan esku asko bihar zielako lanerako edo...
-Keba. Kalian be halaxe izeten zien orduan. Askok bai behintzet. Kalian be ze zauan ba? Antzuelan bi kurtiderixatxo, eta basarrixan danak bizimodua etara bihar jentia. Han zebitzenak be asko basarrira jate aldera gerria pasau zanian, gosiak.
-Kaleko jentia basarrixetara joaten zan gerra sasoian?
-Asko. Jate aldera basarrira orduan, lana eindda. Gari-ebaitzetan eta, jornala ta, jendia basarrira. Urten ein bihar, kalian ez zeuan ezer eta!
-Orduan basarri askotan kaleko jentia eukiko zenduen.
-Patatia sartzerata mendira kaleko jendia. Baserriko sailllen bat hartu eta

otia bazeuan etara eta labrau, eta patatia; urterako patatia hartzen bazeban, hauraxe. Eta bestela gosia pasau bihar.
-Bizimodu gogorra.
-Gogorra bizimodua.

5. Herriko eskola itxita gerra garaian; uzarraga

- **Erref:** ANT-067/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako kontuak. Baserriko umeak udaberrian hasten ziren normalean eskolan. Gerra hasi zenean, eskola amaitu zen. Uzarragako eskolara gerra garaian. Umetako bizimodua.

Transkripzioa

-Eskolara zenbat urtekin hasi ziñan?
-Eskolara, basarrittik, badakizu. Zazpi urte pasau eta zortzira bittartian udaberrian hasten zan. Orduan ez zeuan kursuan hasteik setienbrian eta. Basarriko jendia behintzet udabarrian, kukua etortzen zanian eskolara hasten zan. Eta zortzi urte ixa hasi giñanian eta hamar kunplidu orduko geratu. Bakaziñuak eta gerria eta. Hamar kunplidu orduko ez. Gerria... Bai. Orduantxe bakaziñuak hasi zienian gerria hasi zan. Nik zortzixan hamar urte ein eta hemezortzixan gerria hasi.
-Eta ez zenduen beste kursorik egin?
-Keba! Gero zeuan Usarraga ez dakit dakizun.
-Bai, herri sarreran dauana.
-Han goixan. Eliza haundi bat. Han zeuan herri-, auzo-maistro moduan emuten zebana. Eta haraxe. Egongo dia ni bizi nitzan lekutik bi kilometro... Gehixao, segurua. Hiru igual. Enda gozian beratztitarako hamar urteko neska koskorra, hamaika egin barik artian, bakar-bakarrik. Eta han beste auzuan beste lagun batzuk hartzen nittuan eta beratztitarako Usarrara juten giñan gu, bazkaixa hartu poltsatxuan, goizian goizeti, eta illuntzian atzera etxera. Orduan etxera etorri orduko illuna, negua zan eta. Hurrengo goizian berriz ´e. Hasi San Andres; badakizu noiz izaten dan, ezta?
-Bai, nobienbrian hogeta hamarrian.
-San Andres egunian hasi eta marzuan lenengotan akabau zan nere eskolia. Gero hurrengo urtian jungo nintzala eta oindio ez da aillegau hurrengo urte hori. Bizi! Leitzen eta eskribitzen ikisi giñuan eta.
(...)

6. Herriko eskola; maristen ikastetxea gerra garaian

- **Erref:** ANT-067/007
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Herriko eskola. Gerra hasi zenean, itxi egin zuten eta gerora soldaduak egon ziren bertan. Eskola kontuak. Maristen eskola. Gerra garaian, komentua erre zuten.</p>

Transkripzioa

-Eskolara, herriko eskolara lehenengo?
-Bai. Zazpi urtekin. Zazpi, zortzi eta baiña lehen herriko eskolara. Eta han pasau giñuan gerria hasi artekua. Baiña..
-Herriko eskolia nun zeuan?
-Herriko eskolia ointxe dauan tokixan. Eskolak edarrak zeren. Orduantxe aurreko urten batzutan edo eindda zeren eskola beri-berrixak gu hasi giñanian. Eta gero eskoletan soldauak egon zien, eta gerria akabau artian ixa ez zan egon eskolaik kalia.
-Eta eskola zaharrak nun?
-Ez zauan eskola zaharrik. Gero Maristak zeren.
-Baiña zuk esan dozu...
-Haura goixan, Usarran. Herrixan ez. Goixan zeuan Usarrako ermittian onduan, holako teilla..
-Pentsatzen neban herrixan aurretik beste tokiren baten egon zala...
-Ez, ez.
-Ume txikixena...
-Ume txikixena be hantxe zeuan. Dana toki baten zeren. Han maistra txikixa egoten zan, zazpi urte aurreko edo sei urtera arteko umiekin egoten zan. Maistra txikixa han txikixan eta gero zazpi urtetik gorakuak danok batera.
-Neska eta mutil?
-Ez. Lau eskola zeren. Baten egoten zien zazpi urteti hamar urtera artekuak edo. Eta bestian, hamalau urtera artian izeten zan orduan eskolia asko hartu bihar zezenena. Bestiak lehenao akabatzen giñuan. Enda mutillak be holaxe. Eta gero mutillendako zeuan maristetan. Haura pagauta partikularra izeten zan.
-Baiña harek fama haundixa...
-Bai, haundixa. Bergararik eta danetik etortzen zien hara eskolara mutillak. Eta holaxe. Gero haura be ezkutau zan eta. Maristak be jun zien eta.
-Gerra sasoiaren erre egin zan Maristena?
-Eskolia ez, elizia, elizia. Konbentua erre zan. Erre zezen. Enda maristak etxia, bueno etxia, konbentua kamin kontran eta etxia atzera han be bazeuken, baiña eskolia aparte, elizatik aparte zeuken. Beste pabelloe bat, eta han bi eskola. Harek be batzuk gaztiauak eta bestiak zaharrauak, bi zeretan eukitzen zittuen.
-Eta mutil asko egongo zien, ezta?
-Bai. Herriko gehixenak behintzet han ibilittakuak izengo zien. Danak ez zien izengo, baiña... Gero lanera.
-Pagau eta bihar izaten zan maristetara joateko?
-Bai. Ez dakit zenbat pagatzen zaben. Guriak ez, guriak ezkerio, gure anaiak ezkerio hasiko zan maristetakua. Harek aurreko maistro zaharrazin ibilittakua-eta esaten dabe behintzet. Gerra denporan ezkutau zan, harrezkero ez dao maristaik hemen eta.

7. Eskolako kontuak; non bazkaltzen zuten astegunetan

- **Erref:** ANT-067/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Eskolara goizean joan eta bazkaltzen ezagun batzuen etxean gelditzen ziren. Antzuolako esneduna, Eibarrera joaten zen esnea banatzera.

Transkripzioa

-Orduan goizian goiz eskolara jetxi, bazkaldu bertan eitten zenduen?
-Ez. Guk etxe... Dendatxo bat zeuken eta amistade haundixa geunkan eta hantxe bazkaltzen giñuan.
-Ezaunen batzuen etxian?
-Ezaunen etxian. Enda... Harek edarki emoten zebe bazkaixa, e! Etxeko bezelaxe zien gurian. Baiña zuzen ibilli bihar, e! Hango etxeko etxekoandria zuzena zan. Holaxe ikisi bihar puxkat guk'e edukaziñua, bestela ze ikisiko giñuan ba, ezebez.
-Eta arratsaldian berriz be eskolara eta gero etxera.
-A bai. Goizian zortzitterditan sartzen giñan eta hamaika t'erdittan urten. Gero, horko nausixa zan letxerua. Eta ordurako kamiona zeukan harek, e! Eta Eibarrera letxero ibili zan.
-Antzuolatik?
-Bai. Urte askuan.
-Eta ze eitten zeban?
-Esnia batu eta egunero Eibarrera juten zan haura. Errekadista. Errekau eta zer dana ebaltzen zeban. Eta haura etortzen zan ordu bata eta erdiak inguruan bueltan, eta gu ate onduan haura noiz etorriko zan bazkaltzeko. Haura etortzen zanian, danok batera bazkaltzen giñuan. Enda... Oin umiei ardaorik ez jakue emoten, baiña guri holako baso txiki baten ardao tragotxua emoten zoskuen. Piztu eitten zebala umia eta! Hango etxekoandriak. Umiak tristealdixak eukitzen zittuela eta puxkat piztu eitten zala, enda...
-Poz-pozik eskolara berriz.
-Gero eskolara berriz.

8. Umetako bizimodua baserrian; lanak

- **Erref:** ANT-067/009
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Umetako bizimodua baserrian. Arratsaldean eskola amaitu eta uda garaian

behintzat, soroan edo abereekin lagundu behar izaten zuen. Itulan; lurreta, etab. Auzolana.

Transkripzioa

-Arratsaldian eukitzen zenduen denporarik jolasian eitteko edo?

-Bai, batzutan harrapatzen giñuan, baiña gero ardixak ekartzera mendira joan bihar igual artian udia bazan. Neguan ez, neguan etzan egoten denporaik, baiña udia baldin bazan artian lana, edo ittulan, souan labrantzan zihar doianian, ganauen aurrian ittulan izeten zan. Guk zenbat kilometro eitten ete giñuan? Zortzi urte edo zazpikin hasitta ganauen aurrian ittulan. Oiñ gimnasiara juten die. Oiñ gimnasiara danak.

-Ittulan eitia aspergarrixa zan?

-Aspergarrixa? Amorragarrixa. Hala be atzian... Izeten zan ittulia irixak, eta irixen atzian erreminttia ebaltzen zan. Burdiñaria edo goldia edo lokesea. Eta atzian hari helduta ibiltzen zan aitta edo anaen bat edo, eta zuzen ibilli bihar eta ganauak zainttu bihar zuzen arrastuan. Eta atzian hondrau samarra baldin bazan ondo, baiña batian gora eta bestian behera, atzian desesperau samarra baldin bazan, je! Azkenerako mangauta, e! Ittulia kantsautakua gaiñera, ixa gaixotzeraiño. Guk geunkan labrantzia haundixa. Zenbat buelta eiñ ete giñuan guk? Zenbat kilometro eitten ete giñuan egunian?

-Terrenuak gaiñera askotan aldapan.

-Aldapia. Aldapia edo bai. Honek baiño aldapiaua. Hala be goi samarrekuak eta aldapa haundixauak. Eta gero bixkarrakin lurak gora jaso ta. Horrek danak eitten ibilitta gare gu. Gure anaia puxkat hola arotzerixan be puxkat eitten zebana zan, eta karro bat ein zeban, eta karruakin, ganauekin. Kabliakin karrua ipiñi eta ganauak behera tiratu eta karrua gora lurakin.

-Ederra delantua, e.

-Bai. Baiña hola mugiak eta zerrau zeren tokixan harekin ezin ibilli, eta haura bizkarrakin jaso bihar han; eta holaxe. Bizi.

-Eta hori lan hori ze eitten zan, urtian behin edo?

-Urtian behin, bai. Udaberrixan jeneralian. Arto-ereitte aurrian ba... Tontokerixak diela oiñ esaten dabe eta. Aber zer egin giñuan ba hola ibilitta! Ez, baiña. Jan edo jantzi ein bihar baldin bazan, ein bihar zeoze.

-Eta aldameneko basarritan usatzen hola kablerik?

-Aldameneko basarritan auzo dana juntauta igual; danak hola illaran jarritta, bata bestiai emon otxarrena; zestokada bat bata bestiai emon eta bide saillian, hemendik hango baserrirañoko bide saillian igual. Illaria jarritta lurretan eta. Traiekto luzia zeuan tokixan. Gu asko ez, lurretan bixkarka asko ez giñuan eiñ. Zeoze bai hola muga txikixak zeren tokixan, baiña karruakin jeneralian. Baiña hala be jaso ein bihar eta bota karrora be eta, harrotu be ein ein bihar eta.

9. Bizimodu gogorra; lehenengo autoak

- **Erref:** ANT-067/010
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehenagokoa, bizimodu gogorra. Lehenengo autoak Antzuolan noiz hasi ziren.

Transkripzioa

-Bizimodu gogorra zuek be, oin dala hirogetamar, larogei urte hemen be.
-Bai, bai. Bizimodu gogorra, eta oiñ ez bezelakua gaiñera. Oindio kotxiak noiz hasi zien ba? Gerra denpora..., gerria pasauta gero be Antzuelan zenbat kotxe zeren ba? horixe lehen esan doten letxero horixe, beste batek kamion(a), pollero batek, beste kamion txiki bat, eta egurretan ibiltzen zan beste kamion bat. Eta kotxiak medikuak eta beste fabrikako nausin batek euki. Ostientzian kotxeik Antzuelan be gerria pasauta gerora arte etzan. Baiña gero hasi zan, lelengo kuartro-kuatrua eta gero handik hasi zan. Bai, lelengo kuartro-kuatrua uste dot zala. Gero seisientosa, eta handik aurrera hasi zien gero kotxe dotoriok.

10. Etxejabeari errenta; kapoiak opari gisa

- **Erref:** ANT-067/014
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Etxejabe handiak. Errenta Gabonetan ordaintzen zen. Gai honen inguruko azalpenak. Amak kapatzen zituen kapoiak. Sarritan jaso izan zuen Zumarragako ferian sari nagusia. Behin gertatutakoa kapoi handienarekin.</p>

Transkripzioa

-Bazan etxejabe inportanteren bat basarri asko zeuzkanak inguruan? Ez dakit zein kondek ez dakit zenbat basarri egin zittuan eta... Hemen halakorik?

-Hemen bertan halakoik ez, baiña halakuen basarrixak bai. Guria be "Vizconde del Cedro" edo zan, Donostian zeukan nausixa; eta gero maiordomua eukitzen zebeu harek. Basarrixak bost edo sei edo ez dakit zenbat esaten zebeu zeuzkala harek be. Eta Gabon aurreko egun baten juten zien errentia entregatzera. Kapoia erueten zebeu erregalo eta bakillaua [...]. Bakillaua edarra, e! Gabonetarako. Bai.

-Errentia zela pagatzen zan, dirutan?

-Gure akorduan diruakin. Baiña aurreti, diruakin pagauko zebeu, baiña garixak eitten zeban preziua edo ez dakit nik zela. Edo izentauta ipiñitta zeuken azkenera orduko zenbat? Hoixe ez dakit baiña, hogeta hamar anea gari eta ez dakit zenbat diru; lehenengo hasi zienian edo errentia.

-Garixa inportantia, ezta?

-Hogeta hamar anea, mordua.

-Kilo asko.

-Ez dakit, berrogeta zortzi kilo edo bost edo sei ete zien, anegia. Enda garixa ez zebeu entregauko, haren dirua, diru asko ez zeban eingo orduan garixak be igual eta. Danak antzera izengo zien.

-Eta orduan hori zela entregatzen zotsen? Zuzenian etxejabeari ala maiordomuari?

-Maiordomuari.

-Eta gero harek...

-Harek nausixai. Harek eingo zittuan urteko likidaziño danak-eta. Eta hemen bertan be bai medikuanak-eta bazeren basarrixak; nausixak zeuzkenak be, hari berai pagauko zotsen bertan bizi zienian.

-Eta kapoiak erregalo.

-Kapoiak.

-Eta zer izeten zien, basarrixan hazittakuak?

-Etxian hazitta. Gure amak berak kapatzen zittuan. Jolin, haura Zumarrara Santa Lutzietan, premixua behin baiño gehixagotan ekarri zeban harek kapoiekin eta. Bai. Kapoiekin Zumarrara oiñez, astuan hartu kapoiak eta. Neu be junda nao. Hemendixe be bai gaiñera. Ama gaixoik-eta ondorian. Haura gauza ez eta hartu astua eta kapoiekin Zumarrara. Edurrakin.

-Ba ez da erreza izango kapoiak haztia?

-Kapoiak urtebete.

-Sekreturen bat eukitzen zeban? Entzunda daukat, e, illunetan edo eukitzen zien? Kaixolan baten baiña bai, e?

-Ez. Guk libre ebaltzen giñutzen beti.

-A bai, e?

-Bai. Eta gero ba azkenera artua sartzia izeten zala ona, artalia. Jakingo dozu ze dan artuan alia. Eta haura izeten zala ona sartzia eta illuntzian hartu kapoiok eta hari sartzen jardun bihar izeten zan. Eta aitta zana baziharduan ba kapoiei Kontzeziño eguna edo ez dakit ze zan, artalia sartzen, eta itto. Kapoirik haundiña. Haura zan penia. Premixoarako kapoia. Eta edarra zeuan. Etxian jan giñuan! Bestela ez zan izeten! Oilluak-eta bai baiña. Kapoiak-eta oillaskuak-eta saldu ein bihar izeten zian! Dirua bihar izeten zan eta.

-Gustora jan eta...

-Eskerrak aittai berai pasau jakona. Bestela...

-Besten bati pasau ezker...

-Bai, pasau ein bihar beste bati pasau ezker be baiña...

11. Kapoien inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-067/015
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserritarrek Antzuolatik Zumarragara feriara. Kapoien inguruko azalpenak. Oilasko egokienak aukeratu; etab.</p>

12. Oiloak; arrautzak

- **Erref:** ANT-067/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiloak; txitak nola hasten zituzten. Arrautzak.

13. Behi esnearekin ere gazta egiten zuten

- **Erref:** ANT-067/019
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Behi esnea sobratuz gero gazta egiten zuten. Gazura.</p>

14. Gosaria

- **Erref:** ANT-067/021
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Goizetan zer gosaltzen zuten. Taloa; baserriko ogia.

15. Taloa; artoa eta esnea

- **Erref:** ANT-067/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Taloa eta esnea; artoa eta esnea. Aia; morokila.</p>

16. Labeko sua

- **Erref:** ANT-067/024
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Ogia zenbatero egiten zuten; nola. Labeen sua egiteko egur onenak zeintzuk ziren. Lexiko interesgarria.</p>

17. Garia errotara astero

- **Erref:** ANT-067/025
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Astero garia errotara eraman behar izaten zuten. Bahean pasatzen zuten irina.</p>

18. Auzo bakoitzean errota bat

- **Erref:** ANT-067/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Errotak inguruan. Antiguako errota. Auzo bakoitzean errota bat. Astoaren garrantzia baserrian.</p>

19. Auzoetako bideak

- **Erref:** ANT-067/027
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Auzoetako bideak. Estratak, "bidetxurrak", e.a. Gurutzebideak.

20. Erromeriak; dantzaldia herrian

- **Erref:** ANT-067/028
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Erromeria edo dantzaldi gehienak, kalean izaten ziren.

Mendi-erormeriak uda garaian. Inguruko herrietako erromeriak. Herriko plazan eta frontoian dantzaldiak, uda eta neguan. Soinujolea.

21. Kanpotik jendea Antzuolara dantzara

- **Erref:** ANT-067/029
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:59:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Herriko plazan dantzan. Inguruko herrietatik ere jendea etortzen zen. Bergarako pazkoak. Barkileroa.

22. Neskatan-mutiletan; taberna-giroa

- **Erref:** ANT-067/030
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Inguruko auzoetako gazteak elkar-ezagutzen ziren. Neska-laguntzea. Taberna giroa.</p>

23. Neskatan-mutiletan. Arropak; jantzetxeak

- **Erref:** ANT-068/001
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Neskatan-mutiletan. Mutilak nola eskatzen zuen dantza. Kalabazak ere ematen zituzten. Jai eguneko arropak. Auzo gehienek jantzetxea izaten zuten herrian eta bertan aldatzen zituzten oinetakoak.

Transkripzioa

-Bi neska ibiltzen baldin baziñan, bi mutil etortzen zien, eta "faborez" eskatzen zebeñ, eta "ez" esaten bazontsen, buelta ein eta fuera! Haura kalabazia izeten zan.

-Orduan kalabaza asko emandakuak zarie zuek?

-Ez.

-Batzuk bai, ez? Mutillak be...

-Mutillak be gutxi gorabehera jakitten zebe zeinena jun edo ze ein, baiña...

-Edo zein zan oso kalabaza-emoteillia eta...

-Bai, orduan be... Baiña danak ezaututa egoten zian. Batzuk dotoretxuauak, beste batzuk korrientetxuauak eta. Danerakuak orduan be, oin bezelaxe.

-Eta orduan erromerixetara eta jantzitta be doteretxuao joango ziñazien?

-Bai. Baiña soiñokotxo batekin. Haura gorde biher.

-Jaiegunetarako?

-Bai, jaiegunetarako eta jai haundittarako ta, ba perkalezko soiñekon bat.

-Eta gero zer izaten zan, zapatak ala abarketak?

-Udan abarketak giro onakin. Bestela zapatak. Kalera juten bagiñan, abarkak eta galtzak kaleraño. Gero jatzetxia geunkan kalia auzo danak behian. Eta han kanbixatzen giñutzen zapatak. Erremeixara juteko eta elizara juteko eta han. Jaixan kalera juten giñanian beti han kanbixatzen giñan. Oin astian abarkekin kalera astuakin eta jun ezkerio samur, kalera jun arren.

-Jatzetxia nun eukitzen zenduen?

-Jatzetxia? Ondarre. Kalia entradan. Eta eskolara juten giñanian bazkaltzen giñuan tokixan. Auzo gehixenak han eukitzen zaban. Guk geuk euki giñuan holako kuarto bat auzuandako. Eta aurretik danak bakoitzak bere kutxak, kutxatxuak, bakoitzak beriak. Eta gero harek zatartu ein zien, eta erak ipiñi zebe armaixuak kajoiekin, bakoitzandako kajo bana. Erak ein eta ipiñi zebe, harek kutxa harek danak kendu eta armaixua kajoiekin ipiñi zebe. Eta zapatak eta nahi zebanak. Eta sekula ez zan ezer galtzen han, e. Sekula ezer. Zapatak aldatu eta hantxe laga igual, hurrengo domekara artian han egoten zien harek. Bakoitzak bere kajoetan sartu eta. Kalera. Ostientzian Bilbora eta Donostiara sarri jungo giñan gu han zapatak lagata.

-Beste auzuak be esaten dozu jatzetxiak eukitzen zittuela. Ez dozu jakingo...

-Hemenguak be bai. Bakoitzak bere etxetxuak eukitzen zittuen. Hemen´e bazeuken jatzetxia, entradan, kalia. Eta handiko basarrikuak, harek auzo danak ez, honek bakoitzak bere etxetan zeuzken, baiña gure auzuan auzoik gehixena hantxe, bertan. Ez dakit zenbat kajo izango zittuan harek. Hamalau-hamabost igual. Armaixo dezentia zan eta bakoitzak halako kajo normal bana, eta hantxe bakoitza bere kajoetan.

24. Mutilen arropak jai egunetan

- **Erref:** ANT-068/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Mutilak jai egunetan nola janzten ziren.

Transkripzioa

-Neskak esan dozu soiñeko perkalezkua, baiña mutillak zelan joaten zien jantzitta jaiegunetan?

-Mutillak praka milraiasa jeneralian, eta zapatilla zurixak. Eta udan eta neguan be igual haretxekin, e. Giro ona baldin bazan. Eta bestela trajia jeneralian. Hola jai haundi samarrak-eta zienian mutillak trajia. Eta gabardinak eta. Gero, gerotxuagora, gu ordurako ia hamasei-hamazazpi urte.

-Gerra ostian?

-Bai gerratik gerora. Aurretik ez gabardinaik eta gerra aurrian. Euko zittuen medikuak edo, gabana edo euko zeban baiña.

-Baiña bestela basarritarrak eta

-Basarritarak-eta gabardinaik-eta hola. Baiña behin hasi zanian bat modan, belaxe danak, gehixenak ein zittuen, e!

-Bai, e?

-Bai.

25. Arropa berria estreinatzeko sasoia

- **Erref:** ANT-068/003
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Arropa berria noiz estreinatzen zen.

Transkripzioa

- Jai egunetan erropa espezialen bat estrenauko zan. Neskak abriguak edo.
- Bai, abriguak Kontzeziño Egunian. Orduan Kontzeziño Eguna izeten zan, abrigua berrixa ein ezkerio, Kontzeziño Egunerako.
- Nahiz eta hotz asko egin, ordura arte ez zan estrenatzen.
- Ez. Baldin bazeukan, hotz asko ein ezkerio ebali, baiña berrixa ez. Berrixa orduan estrenau.
- Eta udako erropia?
- Esan dotsut ba! Soiñeko bat fiestetarako-edo. Baiña ez urtero, e! Urte baten ein ezkerio hiru-lau urtian harekin ibilli biher. Aaa..., haura zainttu biher. Oiñ terkalezko hori ba udaberrixan urtero igual. Baiña formala haura gordeta.

26. Jostunak; emakumeek frakarik ez

- **Erref:** ANT-068/004
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Jostunak baserriz baserri. Arropak asko zaintzen ziren, urtero ez zegoen berria egiterik eta. Emakumeek frakak janzterik pentsatu ere ez.</p>

Transkripzioa

-Jostunik eta egoten zan? Basarriz basarri ibiltzen zan jostunen bat?

-Bai. Bi ibiltzen zien Antzuelan. Bi ibiltzen zian.

-Basarrikuak eurak ala kalekuak?

-Basarrikua zan bat. Haura zan kanpotik etorritakua, baiña basarrixan bizi zan, neskazarra zan. Geure azpikaldeko etxian bizi zan haura eta bestia geure aman aitzia, ahizpa. Bai, makiña bat basarritan ibiltzen zana.

-Ze ibiltzen zien, josteko makiñiakin batetik bestera?

-Bai, eta makiña bat bider galtzarpian hartu makinia eta.

-Basarri batera?

-Eta gero bestera eta...

-Eta erropia amaittu arte bertan geratzen ziren lo eitten?

-Ez, ez. Haura etxera beti. Oin makinia bai, han lagako zeban. Guk jeneralian astuakin jun eta makinia zetorrenian jasotzen giñuan. Egun pare bat edo pasatzen zittuan. Baiña aitzia izen arren, haura beti etxera. Gizona bazeukan, familixaik ez zeuken baiña gizona zeukan. Ia bastante zahartu artian. Orduan [larogetakak], ez dakit ixa hamar edo ez zittuan eingo.

-Orduan jostunak basarritan...

-Bai. Eta guk geunkan Bilbon tia bat eta handi bialtzen zoskuen erropia asko eta dotoria. Harek eukitzen zittuen bordauak eta! Eta nere aitzia edade ingurukuak, zeozer zahartxuauak edo, harek edarki eukitzen zittuan. Eta nik haundi, luzetxo nik askotan. Eta hau moztia eta. Tia giñuan, hola begira-begira egoten zan eta: "Hori ondo jaon, bihar edo etzi hankak luzatuko jatzue eta horrek ez dauka ezer egin biharrik. Eta ala! Ni luzetxuauakin jun biher, bestiak edarki eukitzen zittuen handik etortzen zienak, bere edade ingurukuak zien eta. Guk erropia etxian gutxi eitten giñuan baiña asko eukitzen giñuan. Urtian bialtzen zeuben maleta bat. Etortzen zan Gabon inguruan turroia eta danetik bialtzen zeuben.

-Haura poza, e!

-Jolin. Haura maleta haura, tia haura etortzeko pozik egoten giñan gu.

-Eta bestela baserrixetan nausixan erropia txikixandako...

-Ona bazeuan bai. Hori matematiko. Dana aprobetxau biher.

-Petatxuak ipiñi eta...

-Prakei eta. Soiñekuei... Soiñekuak ez zeuben eukitzen petatxuak ipintzeko halako leku zerik, baiña prakei eta hola, aurrian behintzet. Orduan prakaik ez zan emakumiak erabiltzen. Orduan, jo! Hotz edarrak pasatzen zien orduan. Prakia izen edo neguan gonia izen ze diferentzia dauan esan be ezin leike. Baiña orduan prakaik pentsau be ez jazteik be iñok, emakumiak. Edurra zeuan eta nik ez dakit zeihenak izengo zian aittanak edo anaen batenak edo, prakak, eta neuk oinddio han basarrixan, eta mutillak soldau zeren, eta han beheko etxeuak eta: "Han, Sasketan mutillen bat etorri da etxera". Ni prakekin arbittan eta mutillen bat etxera etorri zala pentsatzen.

-Orduan frakak iñundik iñora...

-Ez, ez.

- [...]

-Hotz zeuan eta!

-Baiña besten batek igual ipiñi be ez.

-Ez ba. Nik haraxe juteko, arbittara juteko. Izotza-ta, edurra-ta, zeoze.

-Eta orduan konturatu ziñaten ederra aldia zeuala gonak erabilli edo prakak erabilli.

-Bai, baiña artian prakaik ezin ipiñi kalera-eta juteko. Oinddio be zenbat ba...

27. Ile-apaindegia; orrazkerak

- **Erref:** ANT-068/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Gaztetan Bergarara joaten ziren ile-apaindegira. Orrazkerak.

Transkripzioa

-Eta gero ulia eta. Jarraitzen zenduen modaren bat? Egoten zan hemen pelukerixarik Antzuelan?

-Bai, bastante azkar hasi zan. Ni gaztia nintzala Bergaa juten giñan pelukerixara. Permanentia, orduan permanentia urtian bat edo bi eitten zien eta gero haura moldau biher izeten zan ahal zan moduan etxian handi aurrera. Enda...

-Eta bestela umetan, kopetak edo?

-Ez. Moztuta ebaltzen giñuan guk. Eztakitt nun mozten giñuan. Aittak igual moztuko [zotsen], edo amak edo. Eztakitt ze eittten zoskuen, baiña motza ebaltzen giñuan illia. Orduan ille luzeik gutxik ebaltzen zebeñ.

-Laburrakin errezago...

-Bai. Jolin, garbitzeko eta diferentzia edarra. Garbittu? Orduan burua garbitzia eta iñoi akordau be eztakitt eitten jakon.

28. Ur-korrontea; argindarra

- **Erref:** ANT-068/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ur-korronterik ez etxean eta ura iturritik ekarri behar izaten zuten. Argindarra.</p>

Transkripzioa

-Orduan garbittasun kontuak eta, ur korrientia ez zeuanian etxian, ezautu zenduan zuk?

-Ura bai, guk urten biher izeten giñuan aurtengo moduko sekutia zanian kilometro bat bidian ixa ura ekartzera igual, eta ganauak be haraxe erun biher. Atzera etxera jun orduko danok egarrixak amorratzen eta erateko ura be handixe ekarri biher. Garbitzen...

-Itturiren bat edo?

-Bai, ur haundixa zeuan, baiña ixa kilometro...; kilometroik etzan egongo, baiña ba!, asko gutxiao igual ez.

-Izenik bazekan?

-O(g)itturri.

-Eta bertan etxian sukaldian ez zekazuen ur korrientia.

-Gero bai. Gerora bai, baiña.

-Umetan ez?

-Ez, ez.

-Eta argirik?

-Argixa bai, argixa nere akordu guztian. Bueno, argixa hementxe, horretxek, goiko basarrixak-eta hementxe zeuken zentrala eta hortik eukitzen giñuan. Eta gero horrek ezin edo eztakit zer, eta gero beste auzotik ipiñi giñuan baiña iguala handi be. Uda azkenian beti argi barik. Eta labadorak eta hasi zienian, ezebez. Hemen labadoria zeuanian ba esaten gontsan: "Puskat altutxuao botako dozu gaur?" Bai ba, gu egon giñan hamahiru laguneko familixia. "Labadoria puxkat mobitzeko altutxuao botako ziñukie?" Baiña ura gastatzen jakuen, eta ura gastau ezker ezin bota.

29. Lixiba nola egiten zuten

- **Erref:** ANT-068/007
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Garbitasun kontuak. Lixiba non eta nola egiten zuten. "Zapi-banastak" eramaten zituzten uraskara; arroparekin bakarrik erabiltzen ziren banasta haiek. Ehunezko arropak ezagutu zituen baina algodoizkoak erabiltzen zituzten gehienbat. Antzuolako oihalgilea.</p>

Transkripzioa

-Umetan kilometro bat ein bihar izeten zenduen, ura ekarri eta...

-Bai. Eta garbiketia. Orduan lixibia eitten zan.

-Nora joaten ziñazien? Errekara edo?

-Han abergia zeuan juten giñen toki haretan; beheko etxeak be haraxe juten zien. Haren zera zan haura, eta guk gastatzen jakunian. Baiña beheko etxian be urik ez zeuan, e. Gu bizi giñan azpikaldeko, hiru bizitzakua zan. Enda han be ez zeuan, eta harek be haraxe juten zien, eta gu be ba lixibia edo ohe-erropak hamabostian edo hogeta bixan edo danak batera garbitzen zien; lixibia esaten jakon.

-Ze joaten ziñazien, bertara, eta han zer zeuan, harrixak?

-Harrixak eta abergia; abergia ba askia, labaderua zeuan han. Eta han danak garbittu eta egositta, etxian jabondu eta egositta eruan eta gero han aklarau dana. Bueno!!! Astuan hartuta, zapi-banastak izeten zien.

-Zapi-banastak?

-Erropiakin ibiltzen zienak bakarrik. Lixibia eta zapixak esaten jakuen, eta zapi-banastak. Banastak pare bat behintzet beti egoten zien, harek beste ezekin be ez zien ibiltzen. Erropiakin.

-Zelakuak zien, diferentiak?

-Bai, kuadroko zabalkote batzuk, motzak. Eta harek zapi-banastak.

-Harek erropiandako.

-Bai, gero bestiak satsandako-ta banastak aparte.

-Bertara eruan astuakin, han aklarau eta...

-Atzera hartu han eta gero euzkittan ipiñi eta...

-Bueltan ekarri aurretik ura kendu biharko zontsazuen, ezta?
 -Lelengo jabondu... Euzkixak kendu bihar izeten zotsen. Bai, bueltan bihurtu. Bihurtu, eta ura etara ahal zana, eta gero euzkittan esegi eta.
 -Gaiñera orduko oheko erropak eta senduaguak izango zien, ez?
 -Ehunezkuak ez baldin bazien.
 -Ezagutu zenduan zuk ehunezkuak?
 -Ehunezkuak bai, ezautu egin nittuan, baiña asko ez nik. Algodoia. Baiña harek be fuertiak izeten zian orduan, algodoezkuak be. Ni akordatzen naiz gerra ostian, Antzuelan eitten zittuan gaiñera batek izarak, bueno, telia eitten zeban.
 -Ehunezkuak?
 -Ehunezkuak be ez zien, baiña fuertiak. Eta harek bigundu artian, jabontzen eskuak odola darixola igual geratzen zien neguan eta. Orduan ez zeuan goanteik.

30. Antzuolako ohialgilea; artilea

- **Erref:** ANT-068/008
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Antzuolako "tejerua". Amaren arrioko arropak ehunezkoak ziren Beraien baserrian ez zuten linurik (lihorik) egiten, baina azpiko baserrian bai. Artilearekin haria nola egiten zuen amak.

Transkripzioa

-Esan dozu izarak eitten zittuala...
 -Bai. Gerra ostian zan hori.
 -Baiña nun? Antzuelan?
 -Bai. Kalebarrenian. Aldamarkua. Oinddio etxia han dao. Tejerua hil zan, haura zaharra zan. Eta gaztiak, ez ba, harek (eitten) zeбен moduan ezin segittu. Eta harek ein eitten zeban, eta familixia harek be dezentia, eta gerra denporan patatia edo, ogixa edo, artua edo, zeoze. Eta guk eruaten gontsen eta gero telia, ordaiñian telia, eta holaxe. Trukia.
 -Orduan ehunezko telak justu-justuan ezagutu zenduzen, baiña biharbada aman arriua...
 -Bai, aman arriokuak. Guk ez, ehuna eitten eta. Han beheko azpikaldeko basarrixan eta bai. Liñua eta hartzen zeбен, baiña gurian ez.
 -Liñua hartzen zeбен, orduan zuk ikusitta izango dozuz liñasoruak eta zelakuak zian?
 -Liñua nik ez dakit ba. Guk sortetan ikusten giñuan, batzen zeбенian, han beheko basarrikuak.
 -Loratsuak?
 -Ez dakit.
 -Lora urdiña edo?
 -Ez dakit, ez dakit loria zelakua etaratzen zeбен. Umiak giñen. Goruutan be eingo zeбен harek, e! Eta txarrantxia edo ez dakit zela esaten zotsen, pasatzen zebena eta. Nik ez dakit!
 -Eta kardau...
 -Kardau? Zera bai, harixa, ardi-lania bai.

-Bedarra berari... Hazixa soltatzeko edo...
-Ez dakit ze eitten zotsen bedarra. Nik ardi-lania bai. Gure aitta zanak be txabilliakin zera eitten zeban, harixa. Eta hemenguak be bai. Kardak izeten zien, ardi-lania kardau.

31. Artilezko galtzerdiak

- **Erref:** ANT-068/009
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gizonezkoak haria egiten. Artilezko galtzerdiak. Umetan eskolan eskulanak egiten ere ikasten zuten.

Transkripzioa

-Aittak eitten zeban harixa?
-Aittak? Bai. Galtzak eta eitteko? Edarra gaiñera. Hemenguak bihurtxuaua eitten zeban, gehixago bihurtuta. Baiña nere aittak galtza sendo-senduak, artillezko, artilliakin eitten zan.
-Eta amak?
-Amak galtzak bai, artilliakin galtzak eitten zittuan, baiña goruutan ez. Goruutako makinia eta. Gu harekin ibiltzen giñan. Ganbaran bazeuan gurian be. Baiña orduan ia etxakon jaramonik be eitten, eta guk umiak apurtu.
-Orduan jente asko artzain eta ibiltzen zienak...
-Artzaiak ez zien ibiltzen. Illuntzian. Telebisiñoik eta radixoik ez zeuan orduan eta, illuntzian erresazixua errezau eta.
-Baiña esatia nahi dot artzaiak denporia emoten eta eurak izaten zien harixa eitten zeбенak.
-Bai. Hortaiko zerik, hemen gutxi hortara zertzen zienak. Ardizaiñian zebitzela txabillaketan eta gutxi. Illuntzittan gurian eitten zeбен jeneralian. Tio zar bat bageunkan, harek kardau eta ipintzen zotsan eta aittak harixa ein.
-Eta gero amak galtzak?
-Amak galtzak, geuk be bai galtzak, artillezkuak.
-Bai?
-Bai, hona etorri eta gero be bai. Hemenguak be eitten zaban harixa eta.
-Eta esan dozunian hemenguak bihur gehixagokin edo?
-Bai. Galtza gogorrauak. Bihur haundixakin emun ezkerro galtzak gogorrauak. Gutxi bihurtu ezkerro galtzak bigun-bigunak.
-Galtzak bai, baiña jertserik eta eitten zenduen?
-Bai, batzuk eitten zittuen. Neuk ez dot ein jertseik. Eskolan nenbillela hasi nintzan jertsia eitten, eta erdixa eindda hantxe geratu jaten eta. Gehixao ez dot probau be ein jertsia eitten.
-Neguan edo...
-Eskolan ibilli giñanian goizian eskolia izeten zan eta atsaldian neskak laboria eitten zeбен.
-Eskolan?
-Eskolan. Lenengo "trapo de costura"; festoia eta bainikak eta danak eitten ikisten zan puxkat. Eta gero harek pasatzen zienian, batzuk jertsia eta

beste batzuk komodak izeten zien, komoda gaiñekuak eta. Gauza politak eitten zien eskolan orduan umiak.

-Baiña hori neskak.

-Hori neskak.

-Eta mutillak?

-Mutillak ez. Mutillak ez dakit ze eitten zezen, harek eskolia ikisiko zezen.

-Orduan inportantia izeten zan neskak halako kontuak eta lantzia eta josten ikastia eta.

-Josten ikisi. Bainikak, eta ojaliak eta botoiak zela ipintzen dien eta. Oin iñok be ikisten ez dabena. Dana einddakua. Eta gero zeoze zertzen baldin bajako, orduan ezin ein. Orduan bota ein biher.

-Orduan bainikak eta danetik.

-A, bai, bai. Eskolan bai. Hori lehenengo hasittako zerian hori. Izeten zan holako trapu bat, eta haura han egoten zan eskolan, eta goizian eskolia eta arratsaldian lehenengo ez dakit ordu bittati hiruretar edo, lehenengo "trapo de costura", kosturerua. Edo beste lanen bat zeukanak beste lana, edo tximinixak danak trapuekin eta orduan basarritan egoten zien, eta harako trapua edo basarrikuak eta, kalekuak beste zeozer. Gantzilluak eta.

-Artistak orduan.

-Bai. Zeoze ikisi bihar izeten zan emakume lana.

-Gero etxeko lanak...

-Bai, gerorako. Baiña hortarako asko ibilli bihar eskolan. Eta gutxi ibilittakuak.

32. Arreoa gurdian nola eramaten zen

- **Erref:** ANT-068/010
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Arreoa baserri batetik bestera nola eramaten zuten. Bere arreoaren inguruko azalpenak. Idien buruetako larrua; uztarria, zamarrak.</p>

Transkripzioa

-Eta zuk amai edo entzunda arriuak baserri batetik bestera zela eruaten zien edo? Ze imajinatzen dot zure sasoirako halako kontuak galduta egongo ziela.

-Ez. Neuk be arriua ekarri neban; haundixa ez baiña. Puxkat bai.

-Burdixakin?

-Bai. Aittak ekarri zeban. Ezkondu aurreko egunian, aurreragokuan, muebliak eta arreua.

-Mueble eta guzti?

-Bai. Trastiekin, trastiak hartu etxian, etxekuak, eta gero kalia muebliak hartu, mueble berriak, eta basarrira.

-Eta idixekin?

-Idixekin.

-Idixak zela baiña, dotore ipintzen zian edo?

-Harek beti irixak dote eruaten zittuan. Harek kalera zoiarrenian irixak; etxian ibiltzekua buruan narrua bat izeten zan, eta kalera juteko beste bat.

Eta berak garbitzen zeban harek irixen burutako narrua. Bere denporati bere denporati, hartu jaboia eta ura eta komeni jakonak, eta berak.
-Eta narruaz aparte, beste zeoze eukitzen zeben?
-Uztarrixa irixak.
-Holako borla gorrixak.
-Samarrek borlekin. Irixak adar ondota korreak lotzeko. Uztarrixa, samarrek, bakoitzai bat ipintzen jakon, samarra aurrian; eta harek borlak eukitzen zittuen, gorrixak jeneralian. Enda samarrek eta burutako narrua kalera juteko aparte.
-Diferentia izeten zan etxekua eta kalerakua.
-Gurian bai.
-Kalerakua beti dotore-dotore.
-Eta abarkak eta galtzak be bai kalera juteko.
-Diferentia?
-Bai.
-Zure aittak txapela eta eruaten zeban?
-Bai.
-Eta txapela be diferentia izaten zan kalera eruaten zebana eta.
-Bai. Garbixa. Etxian badakizu basarrixan zelako... Lurrakin edo hautsakin zurittu. Euzkixak be bai txapela zurittu beti egunero dabillena.

33. Arreoko gurdia

- **Erref:** ANT-068/011
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Arreorako gurdiak nola prestatzen zituzten antzina; irrintzia egiten zuten.</p>

34. Ezkontzak baserrietan

- **Erref:** ANT-068/012
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkontzak nola ospatzen ziren baserrietan. Bi egunetako ezteiak. "Oilo-ezteiak". Sukaldariak ekartzen ziren baserrira. Ohitura zaharrak.</p>

35. Ezkondu aurretik mutila neskaren etxera

- **Erref:** ANT-068/013
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkontzaren inguruko kontuak. Soinujolearekin eta "etxaferoak" botaz neskaren etxera joaten ziren.</p>

36. Ezkontzeko soinekoa, beltza; luto kontuak

- **Erref:** ANT-068/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkontzeko arropak nolakoak izaten ziren. Luto kontuak.</p>

37. San Blas ermita

- **Erref:** ANT-068/015
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>San Blaseko ermita; Antiguako ermita. Erromeriak. San Blas opilak. Gonbidautzak.</p>

38. Elkartasuna auzoan

- **Erref:** ANT-068/016
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Elkartasuna auzokoen artean. Auzolana. Ingurua asko aldatu da. Garoa, ota-batzea.

39. Basoak eta mendiak nolakoak ziren

- **Erref:** ANT-068/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:44:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basoak nolakoak ziren. Mendi garbiak; artaldeak nonahi.

40. Basoko animaliak

- **Erref:** ANT-068/018
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:44:45. **Bukatu:** 00:48:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Lehenago, basurderik ez inguruan. Erbiak ugari; erbi-kumak. Azeriak, katagorriak. Satanderak. Beleak; miruak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com